
BARRIAK

BIZKAIERAZKO ANDEREIÑOAK

Egia esan, Bizkai'ko erri askotan, «batua»ren andereiñoak ez dira onartzen.

Ori Euzkadi guztiak jakin bear dau.

Zer dala ta?

Errazoia agirian dago.

Sendietan euskeraz dakien gura-soak, eurak egiten dabeneuskerrea euren seme-alabak be egitea gura dabelako.

Seme-alabak asten jakezenezan-Aita ! Ama! Ori ez da orrelan esaten!, aita-amak ixilik geratu bear izaten dabe eta eurak dakien euskerea ezin izaten dabe irakatsi.

Baten batek esango dau bere artean:

—Ori ik esaten dok, baiña ezetz esan non edo zein erritan jazoten doken ori!

Jakin gura dauanarentzat, erri bat beintzat aitatu bear dodalakoan nago.

Zubi ospetsua dingilizka daukan errian, Portugalete'n, jazoten da or!!

Eta askotan andereiñoagaz eztabaida ta burruka itzalak izan dabez.

Jazokun au ezin daiteke ukatu. Osterantzean joan bertara ta itanduan angu Bizkai'tar sendiai.

Eta Portugalete'n jazoten dana, Bizkai'ko beste erri askotan be jazoten da.

Noz burura sartuko dabe «batua»ren irakasleak, umeari lenengoz gurasoen euskerea egin bear jakela? Orixe da, apur bat apainduta, «Urretxindor» Enbeita'k, Azkue'k, Txomin Agirre'k, Kiriki-do'k eta beste askok irakatsi eus

Bizkaia'ri bere euskerea emoten ez ba'dautsagu, tamalez, zori txarrez, laster ezereztu ta galduko da euskerea eta Bizkaia erri erdel-duna izango da.

EGILUZE

Bere eleiztarren ondora barriro biurtuta, laster, bizkaitarra ta jeltzalea zalakotzat salatu. eben, jeltzaleen alizkariak irakurten zitalako.

Beste euskaldun abade asko lez, erbesterau eben, Gotzainari abade ona zala ta politikan ez zala sartzen esan arren.

ERDERARIK EZ

Berbaldia amaitukeran sermolariak esan eban: Orain uste izango dozue erderaz laburpen bat egingo dodala. Baiña euskeraz egiten dan errietan ez geunke egin bear olako laburpenik. Euskera ez dakienak alegindu daitezela ikasteko, Euzkadi'ko izkuntza euskerea da ta. Jakin egiela Humboldt alemandar jakintsuak iñoana: «Mundu zabaleko izkuntzen artean ederrenetarikoa da euskerea».

OMENALDIA ZOR

Eleiz-Barrutiak eta Abadeño'ko eleiz-tarrak Letona'tar Aureliano Jaunari omenaldiren bat egingo dautsoela uste dogu.

Egun orretarako deituta dagoz bere Meza Barriko izan zan aitabitxi ta beste ezagun guztiak.

EGILUZE

URREZKO EZTEGUAK OROZKON

EZTEGU-MEZEA

Orozko'n, Ibarra'ko Atxeta'n, Jazokun eder eta gomutagarri bat izan dogu.

Letona'tar Aureliano jaunak, Atxeta'ko lenengo semeak, orain Abadiño'n abade dagoanak, bere lenengo Meza Barriaren urrezko ezteguak, berrogeta amar urteak, ospatu ditu.

Jai au senide artean bakarrik izan da.

Atxeta-ondoan dagon mojem etxean, lenengo mezea esan eban eleiza beratan, bere anai dauan Deustu'ko pasiotarra ta bigarren lengusu bat lagun dirala egin zan mezea.

ANAIAREN BERBALDIA

Ebanjeliotik artutako irakurgaiaren ostean, esandako anai pasiotarrak egin eban berbaldia.

Aureliano'ren bizitzako jazoera oar-garriak gogoratu zituan.

Abade-ikasketen erdi-erdian, Aprika'ra joan-azo eutsoen, Marruekos'en sortu zan gudan gudari izateko.

Andik barriro Gazteiz'ko abadegaitegira, ikasketak amaitu arte.

Abadeiño'n egoala, jazo jakozan zoritxarrak.

Azkenengo gudaldian, gorrien eskuetan ez jausteko, Abadeño'tik Begoña'ra jaon bear izan eban.

